

Amorruaren amorruz

Estitxu Arozena Albizu



Doinua: Hamalau heriotzena I Kopla handia

- 1 Bihurtu nahiko banu mundua **sarraski** suntsituko nituzke zortzitan **zazpi** eta hau da aholkatzen dutena **zehazki**: zaku bat kolpatzea sentitzean **gaizki**. Hori egin dut baina ez da izan **aski**.
- 2 Egin behar badizu barruak **eztanda** ez duzu moldatuko txarrena **emanda** baso bat hautsi edo atea joz **danba**. Zergatikan ez eman galderari **txanda**: beregatikan edo **neregatikan da?**
- 3 Nonbait noizbait horrela sentitzen **bazara** ez, ez zazula pasa tripak jaten **gaba**. Haserrea azaldu hau pasa zait **hara** horrek mina eman dit harek egin **traba!** Ezkutatzen baduzu **okerragoa da**.
- 4 Gorroto, sumin, herra eta **amorrazio** nahiz eta sentitzea ez dugun **desio** positibo bihurtuz hau dut **soluzio**: sumina bilakatu sortzeko **pasio** amorrua bihurtu zait **motibazio**.
- 5 Eta egun hau badut azkenetan **azken?** Bizitzak ematen du hainbat **irakaspen**. Ez da amaitu beharrik ez badugu **hasten** amorruak pentsatzen ez badizu **uzten** proba ezazu bertso xorta bat **idazten**.